

"LAUDIOKO UDALA" XIX IPUIN LEHIAKETA

Kul-10/30 kultura

O I N A R R I A K

1. PARTAIDEAK

Ipuin lehiaketa honetan, jaio daten barnean dauden idazle guztiek parte hartu ahal dute, beti ere, bakoitza bere mailan aurkeztuko dela. Horretarako, hurrengo mailok antolatu dira:

- | | |
|--|---|
| 1.- Helduen maila | 1990 urtean edo lehenago jaiotakoentzat. |
| 2.- Gazteen maila | 1991 eta 1998 urte bitartean jaiotakoentzat |
| 3.- Umeen maila (Eskolen-artekoa) | Lehen Hezkuntzako ikasleak. |

2. SAILAK

Euskaraz eta **Gaztelerez** sailak eratu dira, lanak bai hizkuntza batera zein bestera idatzita aurkeztu ahal izango direla.

3. GAIAK

Gaia librea izango da, eta lanak sekula argitara eman bakoak eta originalak izan beharko dira.

4. LANEN NEURRIAK

Lanen luzerak hauek izan beharko dira:

Umeentzat: Ezin izango du 2 orrialde baino gutxiago, ez 6 baino gehiago eduki. Eskuz aurkeztutako lanak onartuak izango dira.

Gazte eta helduentzat: Ezin izango du 4 orrialde baino gutxiago, ez 10 baino gehiago eduki eta makinaz tarte une bigaz aurkeztuko dira.

Lan guztiak hirukoiztuta bidali beharko dira, DIN A4 neurriko orrietan, alde bakar batetik idatzirik.

5. LANAK AURKEZTEKO MODUA

Kopiekin batera gutunazal baten barruan idazlearen datuak (Beti: izena, abizenak, helbidea, telefono eta jaio data; umeen mailan hauekin batera ikastetxea eta kurtsoa zehaztuko da) eta NANaren fotokopia sartuko dira. Bai gutunazalaren kanpoko aldean, bai kopietan, lanaren izenburua eta maila ipini behar da, baina ez da agertu behar idazlearen inolako identifikazio daturik.

6. NON AURKEZTU

Lanak Lamuza 13an dagoen Kultura Etxeko bulegoan edo Herriko Plazan z/g Udaletxearen bulegoetan, aurkeztu behar dira.

7. AURKEZTEKO EPEAK

Lanak aurkezteko epea bi mila eta hamarreko apirilaren hogeitahiruan eguerdiko ordu bietan amaituko da.

8. EPAI-MAHAIA

Kultura eta literaturaren munduarekin zerikusirik duten pertsonak osatuko dute epai-mahaia. Hauekin batera, lehendakaritza Alkate jaunaren eskuetan geratuko da eta idazkariaren lana Kultura Arloko Teknikari batek beteko du. Lanak aurkezteko epea bukatutakoan Alkateak, dekretuaren bidez Epai-mahai honen kideak izendatuko ditu eta lehengoko bileraren data ezarriko du. Izendapen hau, derrigorrez, Udal Iragarki-olan kaleratuko da.

9. EBATZIA

Ebatziaren berri emango da ekitaldi publiko batetan. Ekitaldia noiz izango den jakinaraziko da komunikabideen bidez. Dena den sarituei zuzenean egingo zaie gonbidapena. Ekitaldi honetan parte ez hartzeak sariari uko gitea bezala ulertuko da.

10. EBATZIRAKO ERIZPIDEAK

Kalitate literarioa eta originaltasuna izango dira Epai-mahaia erabiliko dituen irizpideak; hauek jasota geratuko dira horretarako egingo den aktan. Beti ere, lehiaketa honen maila literarioa galdu ez dadin, sariren bat edo beste emateke gelditeke, Epai-mahaiaren iritziz, merezigarria ez balitz.

Halaber, komenigarria dela iritziko balitz, aipamen batzuk bananduko lirateke, sari hau diploma bat izango litzateke.

11. ERREKLAMAZIOAK

Epaimahaiaren ebatzia ukazina izango da, eta beronen eskuetan geldituko da oinarriok interpretatzeko ahalmena eta sor daitekeen edozein akats edo gorabehera dela eta erabakia hartzeko eskubidea, beti ere erabaki horrek lehentasuna izango duela.

12. SARIAK

Maila eta sail bakoitzeko, hurrengo sailok egongo dira, baina argi eta garbi egon dadila, egile bera ez dela birritan saritua izango.

Euskaraz eta Gaztelerazko mailan:

1. Helduen Maila

1. Saria: 900 euro eta diploma

2. Gazteen Maila

1. Saria: 300 euro eta diploma
2. Saria: 150 euro eta diploma
3. Saria: diploma

3. Umeen Maila

1. Saria : 120 euro, diploma eta egun bateko 55 plz-tako autobus irteera
2. Saria : 60 euro eta diploma
3. Saria : diploma

13. LANEN JABETASUNA

Sarituriko lanen jabetasuna, eta lanok argitaratzeko eskubidea ere Laudioko Udalarena izango da, horretarako egilearen eskubidea baimenik zertan eskatu egongo ez dela.

Sarituriko lanok, udalerriko kultura ondarea aberasteko izango dira, eta eurok ezin izango dira salerosian erabili.

14. LANAK ATZERA NOIZ HARTU

Saritura suertatu ez diren lanak atzera eskuratzeko epea, sari banaketaren egunetik 30 egunera amaituko da, Ipuinak Kultur Etxeko bulegoan atzera jasoko dira.

Epe horretan hartzen ez diren lanak, suntsitu izango dira.

Udalak ez du ardurarik hartuko, lanen bat galdu edo akatsen bategaz agertzekotan.

15. PUBLIZITATEA

Oinarri hauek Zuin aldizkarian eta komunikabideen bidez zabalduko dira

13. OHARRAK

Lehiaketan parte hartzeak arteragoko oinarri guztiak onartu egiten direla inplikatzeko du.